

2011eko uztailaren 28ean Sopuertako Udaletxean eginiko Ohiko Batzaraldian Udalaren Osoko Bilkurak, eratu eta bozkatu ahal izateko legez ezarritako quoruma izanik, hartu zituen honako erabaki hauek:

AKTA

1.- BIDEZKOA BADA, AURRETIK EGINIKO APARTEKO BILKURAKO AKTA ONESTEA (6/11 ZENBAKIKOA ETA 2011ko URTARRILAREN 23an EGINIKOA).

EBAZPEN ALDEA

2.- BIDEZKOA BADA, HASIERAN ONESTEA SOPUERTAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA SAN MARTIN DE CARRAL AUZOAN 11 ZENBAKIKO EGOITZETARAKO LURZORU URBANIZAGARRIAREN (SAPUR) EREMURAKO.

3.- HORMA KONPONTZEKO ETA HARRIZ ESTALTZEKO OBRA-LIZENTZIA ESKATZEARI BURUZKO TXOSTENA, JOSE IGNACIO GONZALEZ ALONSO JAUNAK ESKATUTA.

4.- 2012an HERRIKO JAIA ZEIN IZANGO DEN ZEHAZTEA.

5.- BIDEZKOA BADA, HASIERAN ONESTEA SOPUERTA UDALERRIAN KANPALEKUAK ETA KANPALDIAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA.

6.- RAMON SENRA JAUNAK ETA JOSE ANTONIO GARCIA JAUNAK 7/11 ZENBAKIKO KREDITU-ALDAKETARI BURUZKO ESPEDIENTEAREN AURKA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.

7.- BIDEZKOA BADA, EUSKO JAURLARITZAK EGINDAKO IDATZIARI ERANTZUTEA. IDATZIA UDAL KIROLDEGIKO ETA FRONTOIKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEAGATIKO TASEN ZERGA ORDENANTZAN ALDATZEN DIREN TARIFEN INGURUKO HAUSNARKETEI BURUZKO DA. ETA IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK TARIFEN ALDAKETA PROPOSATZEKO EGINDAKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

8.- DATUAK BABESTEKO LEGEA. ZINEGOTZIEK ONESTEA.

KONTROL ALDEA.

9.- UDALAREN OSOKO BILKURAK, AURRETIK EGINIKO OHIKO BATZARRALDIAN, HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

10. - GALDE-ESKEAK.